# Denbora-

## 1 Puzzlea

Duela egun batzuk Alazneren urtebetetzea izan zen. Izebak puzzle polit bat oparitu zion, baina amaitu ezinda dabil.
Lagunduko al zenioke?










## 2 Bikote errepikatuak

Herriko arraun taldeak sorreratik irabazi dituen ikurrinak jarrita dauzka taldearen egoitza nagusian. Hiru bandera bi aldiz irabazi ditu. Zeintzuk?





**Erantzunak:** **1.-** a-1, b-2, c-9, d-5, e-8, f-7, g-3, h-4, i-6.
**5.-** 1-b, 2-e, 3-d, 4-f, 5-a, 6-c.

## 3 Kopiatu eta margotu

Eskura al dituzu lapitz eta margoak? Bada, hartu eta marraztu irudi honen beste aldea, eta gero margotu.

# -pasak

## 4 Aldeak

Oinatzek egin dituen bi marrazkiak antzekoak dira, baina ez dira berdinak. Topatuko al zenituzke bien artean dauden 7 desberdintasunak?



## 5 Hitzak alderantziz

Iratxek oso trebetasun berezia du: hitza alderantziz idaztea. Ahalegindu nahi al duzu zuk ezkerreko hitzekin, eta alderantziz nola idazten diren asmatu?

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | aurrikuspen | a | nepseno |
| 2 | zaharberritu | b | nepsukirrua |
| 3 | presidente | c | airerotod |
| 4 | lorrindu | d | etnediserp |
| 5 | onespen | e | utirrebrahaz |
| 6 | dotoreria | f | udnirrol |

## Jolasa




# Futbol txapelketa dadoekin

Harrigarria bada ere, baloirik gabe oso futbol txapelketa interesgarria joka daiteke. Nola? Bada, dadoekin. Jolastu nahi izanez gero, kasu egin azalpenei.

**1** Txapelketa jokatuko duten taldeak aukeratu behar dira, eta multzotan banatu. Adibidez, 5 kontinenteetako 24 talde aukeratuko dira, eta 6ko 4 multzo egin.

**2** Txapelketako lehen zatia ligaxka moduan jokatu da. Hau da, multzo berean dauden talde guztiek elkarren kontra jokatuko dute. Joaneko eta itzuliko partidak jokatuko dira, gainera. Emaitzak orri batean jaso behar dira.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2-1 | | | | |
| | | 2-6 | | | |
| | | | 3-4 | | |
| | | | | 3-1 | |
| | | | | | 3-5 |
| | | | | | |

**3** Txapelketa, esan bezala, dadoekin jokatzen da. Hala, bakarka jokatuz gero, bi aldiz bota beharko dira dadoak. Lehenbizikoa etxeko taldeak sartu dituen golen kopurua izango da, eta bigarrena kanpokoena. Talde handian jokatuz gero, norberak dagokion taldearen dadoa botako du.



**4** Irabazitako partida bakoitzeko taldeak 3 puntu jasoko ditu, berdinduz gero 1, eta galduz gero bat ere ez. Lehen bi sailkatuek lortuko dute sailkatzea. Hortik aurrera final-zortzirenetako, final-laurdenetako eta finalerdietako partidak jokatuko dira. Kasu honetan, berdinketa egonez gero berriro botako dira dadoak.